

Pedro Jose Elizegi *Pello Errota*
(1840-1919 Asteasu, Gipuzkoa)

Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*
(1860 Ereñotzu – 1936 Altza, Gipuzkoa)

ARI NAIZELA ARI NAIZELA

Doinua: Ari naizela ari naizela I
Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)
Testuaren iturria:
Antonio Zavala. 1992. Txirrita. Auspoa. 84 or.

Pello Errota tabernan dela, hor sartu da Txirrita. Kantulagun minak dira biak eta, adarra jotzen, bertsotan hasi zaio Pello…

Pello Errota

Ari naizela, ari naizela
hor ikusten det Txirrita
eta zein ez da harrituko gaur
gizon hori ikusita?
Dudarik gabe egina dio
andregaiari bixita
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora jantzita.

Txirrita

Hauxe da lotsa eman didana
gizon artera sartuta
edozer gauza esaten degu
edan tantokin poztuta
bi alkandora ekarri ditut
bat eranztia ahaztuta
Pellok bi nola jantziko ditu
bat besterikan ez du-ta? (*)

(*) Antonio Zavalaren hitzetan, honela ere jaso izan da: "Pellok bi nola jantziko ditu bat bererikan eztu ta". Alegia, Pellok alkandora bat ere ez duela, berea denik. Txirritak benetan nola esan zuen ez dakigu.